

## ARABIAZ IRUDIKAPEN GARAIAKIDEAK. DISKURTZO KRITIKOAK ETA PENTSAMENDU POLITIKOA

### ***Martxoaren 11ko atentatuen ostean Europan musulmana izatea, Tariq Ramadan***

XX. mendeko azken hamarkadetan, Europan orain arte ezagutu ez den fenomeno bat gertatu da: musulmanen belaunaldi berriak agertu dira, bere jatorrizko herrialdeetara itzuliko ez direla badakitenak eta, alderdi askotatik begiratuta, mundua ikusteko eta ulertzeko duten modua erabat mendebaldarra dela badakitenak. Horitako asko etorkinen seme-alabak dira, Europan jaio eta hazitakoak, eta Europan bertan dituzte bere afektuzko zein laneko lotura gehien-gehienak.

Dagoeneko hainbat mende badira planetako hainbat tokitan gutxiengo musulmanak daudela, Saharaz bestaldeko Afrikatik hasi (Nigeria, Burkina Faso, Ruanda...) eta India edo Asiako hego-ekialderaino iritsiz. Baina orain lehenbiziko aldiz ari da gertatzen komunitate musulman batek kultur testuinguru sekularitu batean txertatu behar izatea; honek bere ohituretako batzuk atzera pentsatu beharra eragingo dio. "Honi guztiari erantsi behar -zehaztu zuen Tariq Ramadanek *Arabiaz irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegiaren laugarren jardunaldian eginiko ekarpenean zehar- New Yorken irailaren 11n eta Madrilen martxoaren 11n izandako atentatuen ondorioak, mendebaldeko herrialdeetan islamofobiaren berrindartze bat ekarri baitute".



Edonola ere, ez dugu ahanzi behar fede islamikoa bizi izateko eta ulertzeko modu desberdinak daudela. Ildo honetatik soziologo batzuek, Edward Said tartean, diote hainbat "islam" daudela, eta arrasto berari jarraiki Tariq Ramadanek kultura islamiko desberdinen izateari buruz hitz egiten du. Ramadanen iritziz, islam edo kultura islamiko horietan guztietan komunak diren elementu eta printzipio batzuk badira (corpus esoteriko bera baitute), baina kanpoko estaldura, gai historiko eta sozial zehatzei aurre egiteko moduak (inguruarekiko moldaketa) era askotakoak dira. "Konparazioa -argitu zuen Tariq Ramadanek-, islam guztietan berdin egiten da otoi-tza, baina pertsonen arteko harremanak oso ikuspegi desberdinetatik ulertzen dira".

Hau da, Islama ez da ez monolitiko ez mugiezina, baizik eta printzipio moral komun batzuetatik abiatuta modu desberdinetan agertzen eta garatzen dena, txertatzen den lurralde zein kultur testuinguruaren arabera. Honexek argitzen digu historikoki oso kultura desberdinetan komunitate musulmanak eratu izana eta, gaur egun, esate baterako Islam indiar bati zein Islam nigeriar bati buruz hitz egin ahal izatea. "Hala ere, badirudi hainbat errezelo dagoela Islam europar bati buruz hitz egiteko unean –esan zuen Ramadanek-; printzipio eta errito musulmanak praktikatzuz bizi izateko aukera besterik ez litzateke izango, mundua kultur ikuspegi mendebaldar batetik ulertuz betiere".

Tariq Ramadanen iritziz, gaur egun intelektual eta teologo musulmanetako asko eta asko urrun dabilta Koranaren "hitzez hitzezko" interpretazioetatik, eta testuaren "irakurketa historiko" batera jotzen dute, testuingurura moldatu eta, besteak beste, kultur aniztasuna bezalako nozio garaikideak jasotzearen.



Ikuspegi erreformistatik, Koraneko irakaskuntzen interpretazioa testuinguru historikotik bereizi ezina dela jotzen da, are gehiago, fedearen dogmen aplikazio automatikoa saihesten duen arrazionaltasun kritikoa oinarritu behar duela ulertzen da. "Hau da –egin zuen ohar Tariq Ramadanek-, Koranaren izaera errebelatua aitortzen da, baina baita testua testuingurura moldatu beharra ere". Abiapuntu hau izanik, Tariq Ramadanen iritziz konpondu beharko litzatekeen kontua zera izango litzateke: zein ote dira egokitzapen horren bidez irits daitezkeen mugak. Ondasun komunaren printzipio islamikoa harturik oinarri, Irakaskuntzaren Liga Frantziarrek *Laïcité et Islam* Batzordearen kide Tariq Ramadanek uste du testuaren irakurketa literala berrikusi egin behar dela interes publikoaren kalteko gertatzen bada. "Erran nahi baita –azpimarratu zuen-, literaltasunak ondasun komunaren mendean geratu behar du beti".

Korrante kontserbadore eta tradizionalisten bidetik jo gabe, hauek uste baitute musulman europarrek kultura mendebaldarretik zeharo kanpo mantendu behar dutela laizismoaren tentazioan ez erortzeko, islamismo erreformistak uste du gizarte zein kultur integrazioaren aldeko apustua egin behar dela, nortasun, fede eta ohitura islamikoei inolaz ere uko egiteke. Ildo honetatik, Tariq Ramadanek Estatu Batuetan dagoen proiektu bati buruzko aipamena egin zuen; honen helburua erakunde bat sortzea da, honek azter dezan, hurrena, esate baterako Fatwa islamikoak –formula juridikoak dira, epai judizialeterako proposamenak, aditu batek eginak, *shariaren* (lege islamikoaren) aginduak aplikaturik- mendebaldeko herrialdeetako arautegietara moldatzeko aukera. Haren iritziz, ekimen hori oso positiboa izan daiteke, Mendebaldean presentzia islamikoa instituzionaltzen eta normaltzen lagundu dezakeelako.

Fede islamikoarekin duten konpromisoa testuinguru laiko batean nola gauzatu behar ote den, horixe da musulman europarrek planteatzen duten kontu espezifikotako bat. "Hau da -zehaztu zuen Tariq Ramadanek-, proselitismorik egin behar al da herritarren artean, edo Islamaren praktika zuhurki gauzatu behar da, printzipioz aurkakoa den testuinguruarekiko harreman oro baztertuz?" Genevako Eskolan Filosofia irakaslea den Tariq Ramadanentzat, ikuspegi erreformista batetik garrantzitsuena musulmanek Europan bizimodu arrunt bat eta printzipio eta balio islamikoen betetzea bateratu ahal izatea da, bere fedea ikusgarri eginez (edo, behintzat, ezkutatu beharrik gabe), baina besteen erlijio aukerak ere uneoro errespetatuz. "Edonola ere -esan zuen Tariq Ramadanek-, "gu" baten eta "haiek" baten (Europa vs herrialde arabiarrek, kristautasuna vs islama...) arteko muga zurrun bat ezartzen duen biko pentsamoldea gainditu behar da; izan ere, bereizte hori areagotu eta larriagotu egiten da krisi egoeretan, eta elkarren aurkako gatatzak eta bazterketa ekartzen ditu, ez besterik".

Kontuan izan behar da pertsona baten nortasuna ezin dela bere erlijio aukerara murriztu, zeren eta pertsona ororen nortasuna itxuratzeko unean eragile asko sartzen baitira (sozialak, lan arlokoak, ekonomikoak, politikoak, pertsonalak ...). Nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik, gaur egun, erlijio batekoa edo bestekoa izatea ez da faktore erabakigarria hiritartasun definizioan, nahiz eta, paradoxikoki, laizismoaren aldeko askok eta askok horretara jo ohi duten, besteak beste Islamaren praktikatzailerik diren pertsonak identifikatzeko eta, neurri batean, horien izena zikintzeko. "Maila praktikoan, izan ere -azpimarratu zuen Tariq Ramadanek- Europan jaio edo bizi diren jatorri arabiarreko gizon eta emakumeei buruzko iritziak aurrez ematen dira, Islamarekiko duketen loturaren arabera, haien sinesmenen aurka joz, gainera, zenbaitetan.



Irailaren 11ko eta martxoaren 11ko atentatuen ostean, aurrez iritziak emateko joera hori indartu egin da, egoera eskizofrenikoa sortaraziz musulmanei zeren eta, alde batetik, gizarte mendebaldarretan txertatu ahal izateko praktika islamikoei uko egitea eskatzen baitzaie, eta bestetik bakar-bakarrik dituzten printzipio erlijiosoen arabera identifikatzera jotzen baitugu. Oztopoak oztopo, dena den, *Globalisation*, *Muslim Resistances*-en egile Tariq Ramadanek uste du posible dela "laikotasunean disolbagarria den" identitate musulman europar baten (Islam europar baten) garapenean sakontzen jarraitzea. Eta aukera honek aldeko zenbait puntu ere baditu, esate baterako beste hizkuntza batzuen gero eta erabilera orokorragoa (Europako hainbat hiritako meskita batzuetan Korana irakurtzeko unean erabiltzen hasiak baitira, esate baterako), mendebaldeko herrialdeetako bitzita politiko, sozial eta kulturean musulmanen partaidetzaren areagotzea, edo tesi feminista batzuk bere egiten dituzten emakumezkoen mugimendu islamikoen sorrera.

“Baina identitate musulman europar baten eraikuntzaren gai hau ez dugu, inolaz ere –esan zuen Tariq Ramadanek-, inmigrazioaren fenomenoarekin nahastu behar, zeharo arazo desberdinak dira eta”. Ildo honetatik, Ramadanek kritikatu egin zuen Europan inmigrazioarekin lotutako arazo guztiak islamdartzeko dagoen joera, funtsezko beste alderdi batzuk, hala nola ekonomikoa edo lan arlokoak, ahanzten (edo minimizatzen) dituen. Tariq Ramadanen iritziz, irailaren 11ren ostean musulmanak munduko beste edozein hiritarrek baino askoz kontrol zorrotz eta gogorragoak pairatzen ditu, AEBetan eta Europan batik bat. Espainian, esate baterako, gobernu sozialista berriko Barne Ministro berri José Antonio Alonsok, duela gutxi, imanek meskitetan ematen dituzten sermoiak kontrolatzea proposatu zuen; Ramadanen iritziz, horrelakorik burutik igaro ere ez zitzaiokeen egingo, elizak eta sinagogak tartean egonez gero.

Mundu arabiar-islamikoaren eta gizarte mendebaldarren arteko borroka dinamika hori saihesteko, Tariq Ramadanek uste du lan teoriko eta praktikoa egin behar dela, honen bidez, alde batetik, balio komunak azpimarratzeko (esate baterako elkartasun eta justizia printzipioak komunak zaizkie kristautasunari, judaismoari, islamismoari, laizismoari...), eta, bestetik, harreman bitar eta hierarkikoak hausteko (menderatzaileak vs menderatuak, borrarroak vs biktimak), elkarrekin eta modu horizontalean (berdinen artean alegia) lan egiteko bidean. “Eta elkarrekin egin beharreko lan honek ez dakar –ziurtatu zuen Tariq Ramadanek *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegian egin ekarpenaren amaieran-, inolaz ere, hainbat gairi buruzko, esate baterako Israel eta Palestinaren arteko gatazkari buruzko konpromisoari eta jarrera sendoari ihes egitea; zeren eta Israelgo estatua zuzenean kritikatzeko ez baita antisemitismoa egitea, Saudi Arabiako gobernuaren gehiegikeriak salatzeak islamofobia zarenik adierazten ez duen bezalaxe”.

**ARGIBIDE GEHIAGO:** <http://www.unia.es/artpen/mundo/mundo01/frame02.html>